

AUZITEGI MEDIKUAK

Bizkaiko auzitegi medikuek burututako borroka luze baten ostean -greba eta guzti-, esan daiteke bide bukaerara helduak garela; edo behintzat pasa den ostiraleko batzarrean hori gerta dadin oinarriak ezarri zirela uste dugu. Hala eta guztiz ere, zuhurtziaz aritu beharra dago eta aurreakordioa ikusi arte ez dugu ezer ziurtzat emango.

- Justizia Zuzendariak **ordainsari igoera lineala aipatu zuen 27IIB mailara berdintzeko kontzeptutzat**. Bada, horixe zen eta -egun ere bada- auzitegi medikuen aldarrikapena. Nobedadea, baina, honekin batera dator: hasieran administrazioak eskaini zuen igoera izendapen askeko karguei begira egina zen eta oraingoan ez. Onartezina zen grebaren emaitzak atzamarrez aukeratutako karguei onurak ekartzea, gainerako medikuen kaltetan; txantxa maltzurra ematen zuen, eskirolak saritzea bezalakoa zen.

Sailak lanpostuen balorazioa egin nahi zuen parekidetasuna onartu beharrean eta, modu horretan, mediku orokorra 27IIB mailaren azpian utzi. LABek beti aldarrikatu du **parekidetasuna ordainsari igoerarako abiapuntu gisa**, Justiziako gainerako langileoi egin ziguten eran. Parekidetasuna zenbatutako kopurua da, osagile guztientzako gutxieneko bakarra; balorazioak, aldiz, ez dakigu zer eman lezakeen. Parekidetasun horrek esan nahiko luke auzitegiko medikuek Osakidetzako eta presondegiatako medikuek irabazten duten kopuru txikiena kobratuko luketela.

Beste lurraldeetako osagileek hobetuko dituzte egun dauzkaten lan-baldintzak Bizkaiko lankideek egin zuten grebari esker; eta ordainsari igoera berdina jaso ez ezik, lurraldearen arabeko aldeak desagertzeaz ere onuradun irtengo dira, Justizia Administrazioako gainerako kidegoekin gertatu bezala.

Bizkaiko auzitegi medikuak euren eskubideen alde egin duten borrokan eredugarriak izan eta izango dira, geldirik geratu nahi izan duten beste lankideen aldean.

- Guardiak direla eta ez direla, ez zegoen ados jartzerik ostiraleko bileran. LABek hasierako errebindikazioa eskatzen segitzen du: **prestasun zaintzan egonik gauean gertakizunen bat artatu behar izanez gero, hurrengo egunean atsedena hartzea dagokio**.
- Prestakuntza dela-eta AMEE osoa hartzen duen plan integral baterako oinarriak adostu behar dira, lurraldeak bereiztu gabe. Bidegabea dena da, lurraldearen arduraduna nor den, mediku batzuk beste batzuk baino prestatuago egotea profesiorako; edo bestela esanda, bizilekuaren arabera herritarrek auzitegi mediku prestatuagoak ala ez izatea eskura. Horrezaz gain, aipatu egitasmo horrek etorkizuneko proiektua diseinatu behar du erakunderako, eta langileak prestatu behar ditu lanpostuaren beharrei begira eta ez antzintasun gehien izateagatik, edo baten batek eskatzen duen sasieskubide batengatik. Labur esanda, **AMEE goitik behera benetan hartuko lukeen prestakuntza osoko plan baterako oinarriak ezarri beharra dago eta gaurkoa alboratu**.

Ezin argiago esan du LABek berriro ere auzitegi medikuek grebarekin hiru aldarri eskatzen zituztela eta egun berdin jarraitzen dutela: ordainsaria, guardia osteko atsedenaldirako eskubidea eta prestakuntza, hirurak bloke bakarrean. Hasieratik saila ahalegindu zen aldarrikapen horiek banantzen, oraingoan ere ez dugu onartuko hori. **Hiru kontzeptu bananduezin horiek jasoko dituen akordio baterako zirriborroa bidaliko dugu sailera.**

LAB harritu zuen beste kontu bat: auzitegi medikuen lan-poltsa ireki zuen Justizia Sailak medikuntza titulazioa duen oro sartu ahal izateko. **Normalean partaide berriak hartzeko –ez bakarrik oposizioaren zati bat gainditutakoak edo aldaketaren bat egin nahi dutenak- lan-poltsak irekitzean hedabide nagusietan iragartzen da albistea. Lan-poltsan horren mediku gutxi izanik bitxia da administrazioak irekiera iragarri ez izana ohiko hedabideetan.** Orain hedapen egokia egin dezatela eskatu dugu. Nola ulertu behar da lan bila atzerrira joan behar izaten duten medikuak notizia izatea eta irekiera hau, aldiz, ia ezkutuan geratzea? Zer gertatzen zaio ba sailari horren trakets jokatzeko? Edo akaso auzitegi medikuak desager daitezen borondatea izan daiteke, haietako batzuek susmatzen duten moduan?

BERARIAZKO LEHIAKETA

Bestela ezin zitekeelako akatsa zuzendu zuten: zirriborrotik kendu dituzte betekizuna duten Donostiako eta Bilboko plazak, BJB ezarri ez arte ez dituztelako eskaini behar. **Aurrekoetan ez bezala administrazioak atzeratu nahi du berariazko lehiaketa orokorra burutua egon arte.** Horrela lehiaketa orokorrean destino berria lortuko ez duenak -edo berariazko lehiaketako plaza bat nahiago izango duenak- parte hartzeko aukera izango du. Lehiaketa orokorrean plaza eskuratu izanak ez du eragozten berariazkoan parte hartzea, horrelakoetan ez baitago izoztuta egoteko obligaziorik.

LAPZaI ALDATZEA

Gasteizko KEBZEn laguntzaile lanpostu bat amortizatu dute eta beste bat sortu Zerbitzu Erkide Orokorrean. Plaza horren inguruan LABek jaso duen informazioaren arabera, une honetan dirudenez ez da ezinbestekoa baina horrek ez du esan nahi geroan beharrezkoak izango ez direnik plaza gehiago. **Izan ere, bileran eskatu genuen BJB ezarrita dagoen barruti judizial guztietan dauden errefortzuzko lanpostu guzti horiek plantilako bihurtzeko.** Gure ustez, urtebetegarrenean badago jakitea, oro har, plantilaren beharrianak zeintzuk diren. Urteak daramatzagu erreklamatzeko EATra atxikitutako plaza finkoak sortzeko, lurraldean zehar suertatzen diren premia larriak artatu ahal izateko. Jakina, ordainsari hobea egokitu beharko litzaieke lanpotu horiei, mugikortasuna dela-eta.

ELKARTE BERRIA

Bake epaitegietako elkarteak sortu behar dute Araia eskualdean (Urkabustaiz, Valdegovía, Artziniega, Okondo y Ayala). Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionario batek eta Laguntza Judizialeko beste batek osatuko dute bulegoa. Euskara betekizuna duen plaza laguntzaileari esleituko diote eta ez kudeatzaileari hura baita jakinarazpenak eta zitazioak egitera joaten dena, beraz, herritarrekin harreman handiena duena. Horrez gain horixe izan zen sindikatuok adostu genuena sailarekin. **Lanpostu bi hauek eskainiko dituzte zerbitzu-eginkizunen bitartez esleitzeko, horrela bete ezean bitarteko langileak izendatuko dituzte.**